

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko otsaila

Euskal AEko landetxeetako eta apartamentu turistikoetako jarduerak urte arteko hazkunde nabarmena izan du 2022ko otsailean

Landetxeetan 5.618 sarrera izan dira, eta apartamentu turistikoetan 48.053, 2021eko otsaileko zifren oso gainetik

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko **landetxeetan** 5.618 sarrera eta 12.208 gualdi izan dira 2022ko otsailean; hau da, urte batetik bestera % 451,9ko eta % 168,5eko igoera izan da, hurrenez hurren.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Otsaila 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2022/02	m/m-12 (%)	2022/02	m/m-12 (%)	2022/02	2021/02	2022/02	p.p. *	2022/02	p.p. *
EUSKAL AE	5.618	451,9	12.208	168,5	2,17	4,47	11,6	7,0	14,6	7,2
Estatukoak	4.935	426,1	10.298	148,0	2,09	4,43	-	-	-	-
Atzerritarrak	683	753,8	1.910	384,8	2,80	4,93	-	-	-	-
Araba/Álava	1.217	977,0	2.440	293,5	2,00	5,49	10,0	7,1	11,4	6,6
Estatukoak	1.149	963,9	2.193	269,2	1,91	5,50	-	-	-	-
Atzerritarrak	68	1.260,0	247	850,0	3,63	5,20	-	-	-	-
Bizkaia	1.157	230,6	2.355	71,1	2,04	3,93	8,1	3,0	11,1	3,3
Estatukoak	1.060	225,2	2.101	68,8	1,98	3,82	-	-	-	-
Atzerritarrak	97	304,2	254	93,9	2,62	5,46	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.244	484,5	7.413	190,7	2,29	4,59	14,3	9,2	18,2	9,9
Estatukoak	2.726	440,9	6.004	159,6	2,20	4,59	-	-	-	-
Atzerritarrak	518	915,7	1.409	494,5	2,72	4,65	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hila bete berarekin izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Martxoaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landetxeetan, 2022ko otsailean erregistratutako sarreraren % 87,8 eta gualdien % 84,4 Estatukoak izan dira. Hala ere, atzerritar jatorriko pertsonen kopurua nabarmen handitu da oraindik ere, eta azken otsailean sarrera guztien % 12,2 eta gualdi guztien % 15,6 izan dira.

2022ko otsailean sarreretan eta gualdietan urte arteko hazkundeak, hurrenez hurren, % 977,0koa eta % 293,5koa izan dira Araban. Gipuzkoan, sarrerak % 484,5 gehitu dira, eta gualdiak % 190,7. Azkenik, Bizkaian, 2021eko otsailaren aldean, % 230,6 gehitu dira sarrerak eta % 71,1 gualdiak.

Establezimendu-mota horien batez besteko egonaldia 2,17 egunekoa izan da 2022ko otsailean, 2021eko hila bete berean behatutako 4,47 egunen oso azpitik.

Plazakako eta gelakako betetze-mailek ehuneko 7,0ko eta 7,2ko urte arteko igoera izan dute, hurrenez hurren: % 11,6ra iritsita plazakakoa eta % 14,6ra gelakakoa.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko otsailean**, sarrerak eta gaualdiak 6.053 eta 28.820 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko otsailaren aldean, urte batetik bestera sarrerak % 293,7 gehitu dira, eta gaualdiak % 99,8.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Otsaila 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamendua	
	2022/02	m/m-12 (%)	2022/02	m/m-12 (%)	2022/02	2021/02	2022/02	p.p. *	2022/02	p.p. *
EUSKAL AE	6.053	293,7	28.820	99,8	4,76	9,38	28,6	12,4	59,5	21,5
Estatukoak	4.526	231,9	20.035	76,7	4,43	8,31	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.526	779,7	8.785	184,7	5,76	17,79	-	-	-	-
Araba/Álava	562	76,7	6.337	60,1	11,28	12,45	22,4	6,5	62,9	14,5
Estatukoak	516	66,1	4.589	43,6	8,89	10,29	-	-	-	-
Atzeritarrak	46	522,9	1.749	129,8	28,00	28,00	-	-	-	-
Bizkaia	4.081	466,4	9.161	169,9	2,24	4,71	23,9	13,1	41,7	14,1
Estatukoak	3.029	369,1	6.223	128,9	2,05	4,21	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.052	1.307,4	2.938	334,7	2,79	9,04	-	-	-	-
Gipuzkoa	1.410	182,6	13.322	88,4	9,45	14,18	39,0	17,3	69,4	30,4
Estatukoak	981	140,8	9.223	70,1	9,40	13,31	-	-	-	-
Atzeritarrak	428	368,7	4.098	148,5	9,57	18,05	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Martxoaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Atzeritar jatorriko bisitarien kopurua Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 25,2 eta gaudien % 30,5 izan da 2022ko otsailean, urte arteko hazkunde esanguratsuak izan ondoren.

Establezimendu-mota horien batez besteko egonaldia 4,76 egunekoa izan da 2022ko otsailean, 2021eko otsailean baino laburragoa, orduan 9,38 egunekoa izan baitzen.

Lurralde historikoei dagokienez, batez besteko egonaldia, 2022ko otsailean, 11,28 egunekoa izan da Araban, eta 9,54 egunekoa Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, 2,24 egunekoa izan da.

Apartamentu bakoitzeko betetze-maila % 59,5era iritsi da Euskal AEn, hau da, ehuneko 21,5 puntu igo da 2021eko otsailarekin alderatuta. Plazaka neurturik, betetze-maila, urtetik urterako ehuneko 12,4 puntuko igoeraren ondoren, % 28,6 izan da.

Informazio-oharra

Landetxeen ETHIren erantzun-tasa 2022ko otsailean % **97,3koa** izan da, eta Apartamentu Turistikoena % **87,0koa**.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginarengatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tlf.: 945 01 75 62